



Idazkari Nagusia

Emakumeen eta gizonen tokiko bizitzako
Berdintasunerako Europar Gutunaren
sinatzaileei

Brusela, 3 Apirila 2013

Ongi etorri Gutunaren sinatzaileen Atlasera!

Andre/jaun estimatua,

2006ko maiatzean sortu zenez geroztik, emakumeen eta gizonen tokiko bizitzako Berdintasunerako Europar Gutunak arrakasta handia izan du Europa osoan. Beraren inplementazioarekin jarraitzeko eta beraren 1300 sinatzaileei laguntzeko xedez, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak (CEMR) Behatoki bat sortu zuen 2012k martxoan.

“Nola bultzatu Gutuna nire eskualdean?”, “Nire hiriak sinatu egin du Gutuna, zein da hurrengo urratsa?”, “Nola diseinatu eta gauzatu ote dezakegu ekintza plan bat?”, “Zein diren Gutuna nire herrialdean sinatu duten gainerako hiriak?”, “Non aurkitu ote ditzaket jardunbide egokien adibideak?”, “Norengana jo beharko nuke, ekintza plan bat ebaluatzeko laguntza behar izanez gero?”. Galdera horiei erantzuteko xedez, Behatokiak webgune bat sortu zuen, www.charter-equality.eu. Webgune hori 2013ko urtarrilaren 31n abiatu zen, Parisen egindako Tokiko Emakume Hautetsien Nazioarteko Konferentzian: *emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: garapen globalaren lehentasun bat*.

Webgunea ingelesez eta frantses dago eskura. Halaber, aldi bereko itzulpen tresna batek bidea ematen dizu orrialde gehienak zure hizkuntzara itzultzeko.

Behatokiaren webgunea eraikitze fasean dago oraindik ere, eta gehiago garatuko da datozen aste eta hilabeteotan. Prestazio berriak eskainiko ditu laster: aukera izango duzu Behatokiaren buletinaren harpidetza egiteko, jardunbide egokiak bilatu ahal izango dituzu Atlasean, zure herrialdeko finantziario-bideei buruzko informazioa aurkituko duzu, eta abar.

Atlasa sinatzaileak eta ekintza planak bilatzeko tresna bat da. Funtsezko tresna da jardunbide egokiak konpartitzeko, hedatzeko eta sustatzeko. Atlasean presentzia izatea lagungarria izan daiteke zure tokiko edo eskualdeko agintaritzak Europa mailan hobeto bistartzeko, eta baita beraren jarduerak sustatzeko ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan.

Zure ekarpena funtsezkoa da Behatokiaren arrakastarako. Gutunaren sinatzailea den aldetik, zure tokiko edo eskualdeko agintaritzak jadanik dago aipatuta Atlasean. Dena dela, orain arte oinarritzko informazioa soilik argitaratu da: zure tokiko/eskualdeko agintaritzaren izena eta mota, bertako biztanle kopurua eta Gutunaren sinatze data. Orain, zure profila osatzera (eta zuzentzera, behar izanez gero) gonbidatzen zaitugu, informazio gehiago



emanez zure Ekintza Planari buruz (baten bat diseinatuta izanez gero) eta gauzatu dituzuen ekintzei buruz (ahal izanez gero, ingelesez edo frantsesez). Gainera, nahi baldin baduzu, zure Ekintza Plana atxiki dezakezu eta jardunbide egokien adibideak konpartitu.

Atlasean duzun profila eguneratu dezakezu, Behatokiaren webgunean. Horretarako, klik egin behar duzu "Gutunaren Sinatzaileen Atlas" izeneko atalean ("Atlas of Signatories of the Charter"), eta gero "Zure datuak eguneratu" atalean ("Update your data"). Zure erabiltzaile izena zure helbide elektronikoa da (e-mail hau bidaltzeko erabilitakoa), eta zure pasahitza "charter_2013". Zure pasahitza alda dezakezu nahi duzunean, "Pasahitza galdu duzu?" ("Lost your password?") atalean klik eginez.

Halaber, Behatokiak ahalik eta ondoen bete dezan beraren aldetik espero duzuna, eskertuko genizuke zure koordinatzaile nazionalari (Mireia Espiau, espiau.m@eudel.net) jakinaraztea zein diren zure beharrak, Gutunaren inplementazioari begira.

Laster egongo gara zurekin www.charter-equality.eu webgunean!

Frédéric Vallier